



IKASTAROA

SARE SOZIALAK ETA ADINGABEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia

Berrikuntzako, Landa Garapenerako eta Turismoko Departamentua
Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo



AURKIBIDEA

▶ Sare sozialak eta adingabeak.....	3
▶ Abantailak	6
▶ Arriskuak.....	10
▶ Heziketa.....	15
▶ Ideia nagusiak eta lotura interesgarriak.....	19



1. Sare sozialak eta adingabeak

1.1. Erabilienak

Adin, gustu eta zaletasun guztietarako sare sozialak daude. Errealitate dinamikoa da; maiz merkaturatzen dira sare sozial berriak.

Sarera konektatu daitekeen edozer gailuren bidez erabil daitezke: mugikorra, tableta, ordenagailua, baita telebista eta bideo-konsolen bidez ere.

Ezaugarri komun bat dute guztiek: harremanetan jartzeko eta partekatzeko eginak dira.


Dauden sare sozial guztien artean, ezagunenak honako hauek dira: Facebook, WhatsApp, Tuenti eta Twitter.

Facebookek 700 milioi erabiltzaile baino gehiago ditu.

Sare horrek adiskideekin norberak nahi duena partekatzeko aukera ematen du: argazkiak, bideoak, esteka interesgarriak, hausnarketak, etab.

Enpresa, elkarte edo pertsona ospetsuen orrialdeen jarraitzaile egiteko aukera ere eskaintzen du.

Bitxikeria gisa, esan dezagun Facebook sare sozialean sortu zela «Atsegin dut» sinbolo ezaguna, klik bakarrean iritzia emateko balio duena.





Inguruan 14 urtetik gorako nerabea baduzu, ziur Tuenti sarea osatzen duten 5 milioi gazteetako bat dela (Tuenti da 25 urte bete arte gehien erabiltzen den sare soziala).

Pentsa zenbateko garrantzia duen 15 urteko nerabearentzat sare horretan parte hartzeak!

Facebooken funtzionaltasunen antzekoak ditu: partekatzea, adieraztea, solasean aritzea, etab. Baina beren modura, noski!

Azkenik, Twitter daukagu. Munduko sare sozial ezagunenetako bat.

Twitterrek hainbat berezitasun ditu. Lehendabizikoa, gehienez ere 140 karaktereko mezuak onartzen dituela. Hori dela eta, mezuak titularren antzera ematen dira, eta informazioa segundo gutxiren buruan zabaltzen da.

Bigarrena, sortu duen hizkuntza. Esate baterako:

- Txioa (bidaltzen diren mezuak),
- Txio egin (Twitter erabili),
- Bertxiotu (informazioa partekatu), eta abar.

Sare sozial honi buruzko informazio gehiago jaso nahi baldin baduzu, Gipuzkoako Foru Aldundiak Twitterri buruzko oinarrizko ikastaroa ipini dizu eskura. Egin klik hurrengo estekan.

Horiexek dira sare sozial ohikoenak, gaur egun gazteek gehien erabiltzen dituztenak.

Guztiekin partekatzen dituzte hainbat ezaugarri:

- Kutsu eta helburu soziala: partekatzea da helburua, solasean aritzea, iritzia ematea...
- Informazioa partekatzeko erraztasuna
- Eta, informazio hori zabaltzeko garaian, biraltasuna



1.2. Zertarako balio dute

Badirudi gazteek argi daukatela; badakite teknologiek nola funtzionatzen duten eta zertarako balio duten. Sare sozialak zertarako erabiltzen dituzten kontatzeko eskatu diegu .

Ikusten duzu, erabateko zentzua du: sozialak gara izatez, halaxe erakusten du sareon erabilerak. Komunikatzeko, partekatzeko... beharra daukagu. Berdin da ingurua aurrez aurrekoa den, edo birtuala den.

Baina... Zergatik uste duzu erakartzen dituztela hainbeste sare sozialek?

1.3. Zergatik erakargarritasun hori?

Guztiok ikusi dugunez, gazteek harreman bat-batekoa eta naturala daukate gailu eta errealitate teknologikoekin. Beste alderdi batzuen artean, erosotasuna eta bizkortasuna baloratzen dituzte, baita gurasoen eta irakasleen gaindik lortzen duten abantaila ere.

Zuzenean sartzen dira sarean hainbat gailu teknologikotatik. Mugikorrak, tabletak, ordenagailuak...

Berehalaxe sartzen dira unean-unean nahi dituzten bitartekoetara: lagunekin komunikatu; argazkiak edota bideoak partekatu; jokoak, musika, filmak, eta abar ikusi...

Gainera, zenbat eta gazteago, orduan eta errazago egiten zaizkie teknologiak; esparru horretan, gainera, nolabaiteko autoritatea ere erakuts dezakete pertsona helduen ondoan.

Hori guztia nahikoa erakargarri da, baina, dena dela, beharizan soziala da erakarpenaren arrazoi nagusia.

Lagunekin harremanetan egoteko beharra daukate eguneko 24 orduetan...

Ziurrenik entzungo zenuen inoiz WhatsApp. Ez da berez sare soziala, baina gazte gehienek baliatzen dute mugikorreko aplikazio hau, mezuak, argazkiak edota bideoak partekatzeko.

Sozializazioa da nerabegaroko ardatza, eta teknologiak horixe dira batez ere:
SOZIALIZATZEKO ERREMINTAK

Sare sozialak garrantzitsuak dira gure seme-alabentzat, beren bizitzaren erdigunean baitaude. Erreminta horien bidez, irudi propio eta pertsonala erakuts dezakete.



Sare sozialak ondo erabiltzeko hezi nahi baditugu, zertarako erabiltzen dituzten ulertu behar dugu. Beren motibazioak ulertuta bakarrik lagunduko diegu sareok planteatzen dituzten arriskuak eta aukerak hautematen.

Nahiz eta arriskuak errazago nabarmentzen ditugun, garbi eduki behar dugu sare sozialek aukera bikainak ere eskaintzen dituztela.

2. Abantailak

2.1. Aldaketa sozialen protagonistak

Nerabeek IKTekin lotura naturala daukate, natibo digitalak balira bezala. Baina beste edozer erremintaren antzera, baliteke sare sozialak ondo edota behar ez den moduan erabiltzea.

Beren hezkuntzaren arduradun gisa, ezin ditzakegu alde batera utzi alderdi positiboak eta eskaintzen dituzten aukerak. Merezi du abantailak zein jakitea. Ikus ditzagun...

Sare sozialek bestelako estatus berri bat ematen digute gizakioi, herritar, kontsumitzaile eta erabiltzaile gisa.

Iritzia emateko, galdetzeko, urrun dauden ekitaldietara joateko eta askotariko informazioa eskuratzeko aukera ematen digute, baita modu desberdinean sozializatzeko eta harremanak izateko aukera ere, modu globalean, alegia.

Aipa ditzagun azken urteetan/hilabeteetan gertatu diren mobilizazio sozialak: Obamaren kanpaina, Haitiko edota Japoniako lurrikarekin izandako elkartasun-kanpainak, edota 15M mugimendukoak, esate baterako.

Sare sozialetan egoteak ikusle potentzial bilakatzen ditu gazteak, lehendabiziko mailako aktore panorama berri honetan.

Konpetentziak garatzeko aukeraz betetako mundu bat; hain zuzen ere, konpetentzia horiek ezinbestekoak izango dira beren bizitza pertsonalean eta profesionalean.

Eta, hala ere, gehienak ez dira ari aukera horiek erabat aprobeztatzen.

Horren arrazoia zera da, sare sozialak batez ere aisiarekin lotzen direla, eta helduok arduratuago gaude arriskuetatik babesteaz urratsak erakusteaz baino.



Pentsa ezazu zuk rol aktiboa izan dezakezula sare sozialek ematen dituzten aukerak irakasteko, nerabeen ikaskuntzarako, garapen pertsonalerako eta partaidetza sozialerako.

Anima itzazu, eta planteatu erronka berriak haientzat.

2.2. Hezkuntzarako abantailak

Honaino iritsita, zera galdetuko duzu: nola erabil daitezke sare sozialak gehiago eta hobeto ikasteko?

Orain artean, teknologiak ekipamenduaren ikuspegitik aldatu du hezkuntzako testuingurua: ordenagailu-gela, ukimen-arbelak, tabletak, eta abar.

Sare sozialek hezkuntzan eragin duten aldaketa harago doa; izan ere, ikasteko modua aldatzen ari dira. Eta irakastekoa ere bai, noski.

Sare sozialek ikaskuntza-prozesuaren erdigunean ipintzen dituzte ikasleak, eta prozesu horretarako beharrezko elementu guztiak dauzkate hainbat formatutan: bideoak eta liburu elektronikoak, blogak, maisu-eskolak... Halaxe osatu dira «ikaskuntzarako inguru pertsonalak»

Hurrengo galdera hau da: zein da hezitzaileen egitekoa testuinguru teknologiko berri honetan? Desagertu ez dira desagertuko; aitzitik, protagonismo handiagoa izango dute.

Alde batetik, informazio hori guztia iragazi beharra daukate: informazio-iturria egokia dela ziurtatu, eta benetan beharrezkoa den edukiak lortzen direla ikusi.

Halaber, ikasleei erakutsi behar diete jasotzen duten informazioa fidagarria den ala ez ikusarazten, bai eta behin eta berriz elaboratzen ere, harik eta informazio hori ikaskuntza-prozesurako benetan erabilgarria izan arte.

Azken batean, sareko lanarekin, ikaskuntza kolaboratiboarekin eta ezagutza-prozesuarekin lotutako kompetentziak garatzea da.

Sare sozialetako hezkuntza-aplikazioak garapen eta bilakaera bete-betean daude. Hauexek erabiltzen dira batez ere:

-



- blogak: irakasgaiei buruzkoak, irakasleenak, ikasgela osoarenak, ikaskuntza edota lanak jasotzeko erabiltzen direnak, eta abar.
- Twitter sarea zalantzak argitzeko, lanen segimendua egiteko, oharrak eta gogorarazpenak egiteko. Familiekin komunikatzeko ekimenak ere badaude
- Eta, jakina, irakasleek eta gai jakin batzuetako adituek egiten dituzten webguneak, beste batzuentzako bitarteko didaktiko gisa balio dutenak.

2.3. Abantaila sozialak

Descripción Audio

Ikusi dugunez, gazteen arteko komunikaziorako, sare sozialek espektatiba guztiak betetzen dituzte. Abantaila sozialak harago doaz.

Harremanen agertoki berri honetan, distantziak garrantzitsu izateari utzi dio. Egunero kontaktu fisikoa edukitzea ezinezkoa den pertsonekin harremanen egonkortasuna sorrarazten du horrek, eta, beraz, afektiboa ere bai.

Sare sozialek:



- Egoera nahiko ezohikoetan isolamendua hauts dezakete, ospitaleratze batean edota atzerrira irtendakoan, kasu.
- Eta ez komunikaziorako bakarrik, baita ezinegonak, beldurrak edota hausnarketak adierazteko ere.
- Zaletasun bereko pertsonen arteko kontaktua erraz dezakete, nahiz eta zaletasun horiek oso bitxiak izan.
- Eta, azkenik, beste hizkuntza batzuetan komunikatzea ahalbidetzen dute, bai ahoz, bai idatziz.

Finean, konpetentziaz ari gara hizketan berriro ere, konpetentzia sozialak oraingoan; gure seme-alabak aise konponduko dira modu horretan komunikaraziko dien gizarte batean.

Sare sozialetan, gure inguru fisikoan bezalaxe, erabiltzaile batzuk aktiboago izango dira beste batzuk baino:

- «Entzule» izango gara sareak informazioa lortzeko erabiltzen ditugunean; haietatik edango dugu, baina ez dugu parte hartuko.
- Parte-hartzaile izango gara, beste batzuek idazten dutenaren inguruko edota albiste bati buruzko iritziak ematean.
- Sortzaile izango gara edukiak sortzen ditugunean. Eta, sozialak, edukiak sortzeaz gain, geurea eta besteena partekatzen dugunean. Hori izango litzateke jarrera ideala.

Honaino sare sozialek eskaintzen dizkiguten abantailak. Ikus dezagun, ondoren, zernolako arazoak sorraraz diezazkiekeen erabiltzaileei.



3. Arriskuak

3.1. Kontuz

Descripción Audio

Pertsonen garapenean, fase eta mugari ugari dago gainditu beharra, harik eta heldu eta zoriotsu izatera iritsi arte.

Nork bere pertsonalitatea garatzea eta sozializazioa aro garrantzitsuak dira nerabezaroan, eta sare sozialek bietan eragin dezakete. Hori dela eta, kontu handia izan behar da sareok zer-nolako garrantzia duten gure seme-alaben bizitzan.

Agian hasita egongo dira lagunekin ateratzen, edota garai hori laster etorriko dela ikusten duzu.

Baliteke zuk jarrera hauetakoren bat edukitzea:

- Mezu argiak ematen dituzu, behin eta berriz errepikatuta,
- Beraiekin hitz egiten eta akordioak lortzen saiatzen zara

Aldi berean, beren adinetik gertuago dauden pertsonak ere badira, beste giro batzuetakoak...

Gauza bera eduki beharko zenuke kontuan sare sozialetan duten presentziarekin pentsatzean: normala da uneren batean planteatzea, eta garbi eduki behar duzu zer estrategia jarraitu behar duzun.

Garrantzitsua da, lehenik eta behin, jakitea ba ote dagoen beraiei adierazi beharreko araurik edota mugarik: arauen berri izanda, errespetatu egin ahal izango ditugu, edota modu arduratsuan bete ez.

Imajinatu inork azaldu ez dizkizun araudun mundu batean sartzen zarela: guztia posible dela ematen du eta ez dakizu zure ekintzek zer-nolako ondorioak izango dituzten.

Gainera, baliteke zure hezkuntza-plan pertsonalarekin lotutako beste arau edo irizpide batzuk egotea ere: zure seme-alaba zer-nolako pertsona mota izatea nahi duzun. Elementu horien arabera, autonomiarekin jokatu ahal izango dute, aukerak aprobetxatuta eta arriskuak saihestuta.

Hauek dira jarraitu beharreko oinarrizko irizpideak:



- Sartzeko adina: inori ez diogu uzten 18 urtez azpitik auto bat gidatzen; saiatuko gara 14 urtetik beherako inork ez sare sozialak erabiltzen gure baimenik gabe
- Portatzeko oinarritzko arauak: gezurrik ez, irainik ez, sarea erabiltzeko arauak ulertzea
- Araurik konplexuenak honako hauekin daude lotuta:
- nork bere nortasuna eta besteena errespetatzea
- nork bere ekintzen ondorioei buruzko ardura

arrisku egoerak identifikatzen jakitea eta haiei erantzuna ematea

Sare sozialak erabiltzean beti kezkatzen gaitu arriskuak badirela pentsatzeak.



3.2. Irudiak partekatu



Sare sozialen alderdi erakargarrietako bat eguneko uneak partekatzeko erraztasuna da, dela telefono mugikorrekin egindako argazkiekin edota bideoekin, edota ordenagailuetako webcamekin egindakoekin.

Ulertu behar dugu adingabeok ikusizko kultura batean ari direla hazten nagusiki, eta komunikazio-prozesuan irudiek balio adierazkor berezia dutela.

Baina ba al dakite zer gerta daitekeen sare sozial batean partekatzen dutenean? Lehenik eta behin, lagunek ikusiko dituzte; haiekin harreman zuzena daukate.

Taldeko norbaitek elkarrekin ez daukaten kontaktu bati bidaltzen badio, amaierarik gabeko kate bat hasiko da, eta materiala edonork edukiko du eskura.

Hori, jakina, erraz eta bizkor saihesta daiteke.

Har dezagun Facebook adibide gisa: pribatutasun-parametroetan sartuta, zer informazio eskura dezakegun eta norentzat muga dezakegu. Nahikoa da jakitea eta egitea! Hori behin eta berriz adierazi behar dugu: nola erabili pribatutasun-aukerak.



Argazki bat argitaratu aurretik hausnartu egin behar dutela esan behar zaie: irudiren bat lagunartetik kanpo gaizki interpretatzeko arriskurik egonez gero, hobe da ez zintzilikatzea.

Argazkian beste inor ateratzen bada, baimena eskatu behar zaio, hura ere bada-eta argazkiaren jabe.

Sarean dabilen zerbait kontrolatzea oso zaila dela jakin beharra dago, eta gure seme-alabei hala adierazi behar diegu.

3.3. Jazarpena, nola aurre egin?

Bada komunikabideetan aitatzen duten beste arrisku bat ere: jazarpen digitala edo ciberbullinga.

Talde bateko kide batzuek beste kide batzuekin egiten duten jazarpena da ciberbullinga; irudi iraingarriak eta umiliagarriak erabilia egiten da.

Baliteke ciberbullinga aurrez aurreko jazarpenaren luzagarri izatea, nahiz eta beti ez den hala izaten.

Jakin beharra dago tankera honetako jazarpenek oihartzun handiagoa izaten dutela aurrez aurrekoak baino. Ez dauka mugarik, ez denboran, ez espazioan. Hori dela eta, jazarpen bereziki krudela eta itogarria izaten da jasaten duenarentzat. Ikus dezagun adibide bat:

Nerabe batek hiru ingurune izaten ditu nagusiki:

- Familia
- Ikastetxea
- Ikastetxetik kanpoko soziala (auzoa...)

Jazarpena ikastetxean gertatzen denean, ez dauka zertan auzunean ere gertatu, adibidez. Horrek nolabaiteko atsedena ematen dio jazarriari.

Baina, ziberjazarpena inguru guztietara zabaltzen da, ziztu bizian, klik bat baino ez da behar izaten... Kasu honetan, jazarpena bizi duenak ez du atsedunik.

Garrantzitsua da gure seme-alabei errealitate honen berri ematea: hala, garbi edukiko dute ezin dutela jarduera horietan parte hartu sare sozialetan (ikastolako patioan inor jipoitzen edota isekatzen ez duten bezalaxe), eta, horrez gain, jakingo dute zer erantzun tankera honetako erasoren bat jasoz gero.

Ezinbestekoa da behar beste konfiantza edukitzea familian gai honi buruz hitz egiteko, gertatzen bazaie ere.



Hainbat ziberjazarpen egoera saihesteko modukoak izaten dira, eta garrantzitsuena lehenbailehen detektatzea izaten da. Nola? Interneten aurkituko duzu informaziorik gai horren inguruan; Eusko Jaurlaritzak 2011n tankera horretako egoerak identifikatzeko argitaratu zuen protokoloa kontsultatzea gomendatzen dizugu, baita Arartekoaren bulegoak argitaratutako material didaktikoa ere.

http://www.ararteko.net/p_1_final_Home.jsp?seccion=s_l doc_d4_v4.jsp&codbusqueda=89&language=es&codResi=1&codMenuPN=1&codMenuSN=376&codMenu=120&title=Materiales+did%E1cticos



4. Heziketa

4.1. Prebentzia neurriak

Teknologiak gero eta gehiago erabiliko ditugu gainerakoekin harremanak izateko. Sare sozialak presente daude gure inguruan, eta horrekin bizi izaten ikasi behar dugu.

Hori dela eta, ezin dugu debekua erabili hezkuntza-estrategia gisa, ahal den neurrian: izan ere, nerabezaroan, debekatutako oro are interesgarriago bilakatzen da.

Horrenbestez, sare sozialak naturaltasunez hartzea da lehendabiziko urratsa.

Baina horrek ez du esan nahi ezin denik ezer egin: sare sozialen aurrean bi estrategia bereiziko ditugu

Murriztailea; sareen erruduntasun-presuntzioan du oinarria, eta, hortaz, debekua justifikatzen ditu, baita sareok erabiltzeari mugak ipintze hutsa ere.

Guraso gisa dugun rola, kontrolatzaile eta zigortzaile izatera igarotzen da. Dena dela, sarbide globalaren aroan, estrategia horrek porrot egingo du: ezin dezakegu ziurtatu inoiz eta inondik sareetan sartu ahal izango ez dutenik.

Bigarren estrategia interesgarriagoa da: eraikitzailea. Elementu birtualak eta fisikoak konbinatzen dituen mundu honetan, gure rola bilatuz modu aktiboan parte harrarazten digu.

Gure seme-alaben mundu soziala ezagutzeko beharretik abiatuko gara, eta, distantzia egokian, nola eta norekin erlazionatzen diren ikusiko dugu.

Kontrola bigarren mailako elementua da; baliteke noizbait beharrezkoa izatea, baina ez da ardatza. Ziurtatu behar dugu gure seme-alabek badakitela aldiro zer egin behar duten, eta badakitela egoera deseroso eta arriskutsu baten aurrean beren burua defendatzen ere.

Baina estrategia horri heltzeko, sare sozialak zer diren eta zertarako balio duten jakin behar dugu.

Eta nola egingo dugu?

Pentsa dezagun etxean esperientziadun pertsonak dauzkagula: aprobeitza dezagun gure seme-alaben ezagutza guk geuk ikasteko; erakuts diezagutela sareak erabiltzen, nola funtzionatzen duten. Kontua ez da haiek baino gehiago jakitea, baina bai, ordea, gure interesa nabarmentzea.



Agertoki digital hauetako portaerez modu naturalean hitz egin behar dugu, mezu ulergarriak helarazita eta bizitza errearekin analogiak eginda.

Kalean ezezagunekin ez hitz egiteko esaten diegun moduan, gomendatu behar diegu ezezagunak ez gaineratzeko beren kontuan; hau da, arauak kalean bezalaxe errespetatzea.

Esate baterako, semaforoak gorri daudenean kalea gurutzatzen ez duten bezala, sekula ez dute inoren nortasuna sarean ordezkatu behar, ezta broma astunak egin ere sareetan.

Seme-alaben babesa eduki, lehengusu helduagoen laguntza eskatu.

Zure etxean sare sozialak erabili ohi dituen seme-alaba nagusiagorik izanez gero, taktika ona izan liteke bere konpromisoa eta laguntza edukitzea; ziurrenik jarrera ona izango du senide gazteagoaz online arduratzeko, kalean egiten duen bezalaxe.

Esate baterako, profila begiratzeko eska diezaiokegu, edota lagun susmagarrik ba ote duen ikusteko esan (susmagarriak iruzkinengatik edota argazkiengatik).

Ikastetxearen laguntza edukitzea ere babes interesgarria da.

Batzuetan askoz ere eraginkorragoa izaten da ikasle helduagoek gazteagoekin solasaldi bat edukitzea, hainbat orduz helduekin hizketan aritzea baino.

Arauek eta mugek presente egon behar dute, bizitzaren gainerako alderdietan presente egoten diren bezalaxe.

Hala, ez diegu txokolatea bakarrik jaten uzten, nahiz eta badakigun txokolatea ez dela txarra; etxera itzultzeko ordua ipintzen da, edota aste barruan telebista ikusteko ordutegi bat arautzen da.

Era berean, garrantzitsua da sare sozialei protagonismo bereziegia ez ematea, are garrantzitsuago ez bilakatzeko.

Eta nahiz eta, a priori, sare sozialek gehiegi erakarri ez, agian gauza interesgarriak topatuko dituzu ondoen egokitzen zaizun sare sozialarekin asmatzen baduzu. Baliteke zure seme-alabekin interes komun berriak topatzea. Anima zaitetz.



4.2. Praktika onak

Gure seme-alabei sare sozialak erabiltzen irakasteko irizpideak ikusi ditugu. Era berean, egoera arriskutsuak prebenitzeak duen garrantziaz ere jardun dugu, baita zuzeneko komunikazioak duen eraginkortasunaz ere.

Mezu ulergarriak behar dituzte beren ekintzek zer-nolako eraginak izan ditzaketen ulertzeko, batzuetan egoera delikatuak ere sorraraz baititzakete.

Nolanahi ere, hainbatetan ezin diogu arazoari aurrea hartu, eta ikusiko dugu baten bat gure seme-alaba endredatzen ari dela sarean, edota haren inguruneari zuzenean eragiten dion argazki desegokiren bat argitaratu dutela.

Ondoren, hainbat aholku emango dizkizugu egoera horiek identifikatzeko, eta nola jardun jakiteko ere bai.

Lehenik eta behin, gure seme-alaba jazartzen ari direla identifikatzeko gauza izan behar dugu, edota haren intimitatea azaleratzen ari direla ikusteko kapaz. Elkarrizketa jarraituak egoera arriskutsuak hautematen lagunduko digu. Konfiantza eman behar diegu laguntza behar dutenetan guregana jo dezaten.

Komenigarria da beren jarreran aldaketarik dagoen ikustea, depresio-indizioak dituen balioestea, suminkor ote dabilen edota adierazpen gutxiko jarrera ote duen.

Gainera, ikastetxearekin eta irakasleekin zuzenean harremana izanda, informazio ugari eskuratuko dugu, eta asko lagunduko digu.

Jakin behar duzu jazarpen kasuak edota intimitatea urratzekoak berdinen arteko taldeetan gertatzen direla, eta oso litekeena dela biktima eta erasotzailea inguru berekoak izatea.

Baina, zer egin dezakegu gure seme-alabenganako abusu edota intimidatze kasuetan?

Ezinbestekoa da lasai egotea eta erreakzio zakarrak saihestea. Lehenik eta behin, lasaitasuna sortu behar dugu, gure babesa daukatela sentiarazi behar diegu. Ondoren, arazoa konpontzeko neurriak hartu beharko dira.



Hasteko eta behin, gomendagarria da abusu egoeraren probak gordetzea. Pantailaren kapturak erabil ditzakezu, bai eta egilearen informazio posible guztia gorde ere.

Komunitate birtual edota sare sozial askotan, argitaratutako informazioa salatzeko edota blokeatzeko botoiak daude, eta kasu bakoitzean laguntza emateko zerbitzu bat ere badaukate. Hartara, jazartzaileekin lehendabiziko traba bat ezar dezakegu.

Adibide bezala, ikus dezagun zer eskaintzen duen Tuentik alde horretatik. «Ezabatu laguna», «Blokeatu erabiltzailea» edota «Salatu erabiltzailea» aukerak dauzkagu.

Oro har, sare sozialeko administratzaileek neurriak hartuko dituzte: salatutako argazkiak erretiratuta edota erabiltzaileen sarbidea kenduta.

Jazarpena ikastetxetik baldin badator, ipin zaitez ikastetxearekin harremanetan neurriak har ditzaten eta arazoa konpon dezaten.

Ezerk balio ez badu, gogoan izan bide legalari ere hel dakiokela. Ez izan zalantzarik, joan poliziarengana eta egin salaketa, behar izanez gero.

Jarduteko protokoloei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, joan orriaren beheko zatian ageri diren esteketara.



5. Ideia nagusiak eta lotura interesgarriak

5.1. Sare sozialak eta Adingabeak – Erabilienak

- Sare sozialak: **Harremanetan jarri** eta **partekatzeko** pentsatuta daude.
- **Facebook** da munduan **erabiltzaile gehien** dituen sare soziala: 700 milioi erabiltzaile.
- **Twitter mezu laburrak eta titularrak** segundu gutxiren buruan bidaltzeko erabiltzen da: [Gipuzkoako Foru Andundiak argitaratutako Twitterri buruzko ikastaroa kontsultatu dezakezu](#). Jarraitu [Twitterren](#).
- **Tuenti, nerabeek** gehien **erabiltzen duten sare soziala** da.

5.2. Sare sozialak eta Adingabeak – Zergatik erakargarritasun hori?

- Edozein gailu teknologiko erabiltzeko **erosotasuna** eta **bizkortasuna** baloratzen dituzte.
- Nerabeek beren lagunekin etengabeko **kontaktuan** egoteko beharra daukate.
- Sare sozialak **sozializatze**ko erremintak dira.

5.3. Abantailak – Aldaketa sozialen protagonista

- Sare sozialetan egoteak **ikusle potentzial** bilakatzen ditu gazteak, lehendabiziko mailako aktore, **panorama berri honetan**.
- Beren bizitzan garrantzitsuak izango diren **konpetentziak garatzeko aukera** ematen diete.
- Zuk **lagundu** diezaiekezu sare sozialek eskaintzen dituzten **abantailak baliatzeko**.

5.4. Abantailak – Hezkuntzarako abantailak

- Bideoak, liburu elektronikoak, blogak edo maisu-eskolak erabiliz, «**ikaskuntzarako inguru pertsonalak**» eratu dira.
- **Hezitzaileen egitekoa garrantzitsua** izango da saretik jasotako informazioa filtratu eta fidagarritasuna bermatzen dela erakutsiz.



- **Hezitzaileak** sareko lanarekin, ikaskuntza kolaboratiboarekin eta ezagutza-prozesuarekin lotutako **konpetentziak garatzen** ari dira.

5.5. Abantailak – Abantaila sozialak

- **Konpetentzia sozialak** eskaintzen dizkiete.
- Sare sozialek **isolamendua puskatzen** lagundu diezaiekete, **adierazteko gaitasuna** erraztu eta **antzeko interesak** dituzten pertsonekin **kontaktua** ahalbidetzen dute, **beste hizkuntzetan mintzatzeko aukera** emateaz gain.

5.6. Arriskuak – Kontuz!

- **Arauk ezagutu** behar ditugu, **abantailez baliatu** eta **arriskuak ekidinez** jokatzeko.
- **Portaerako oinarrizko arauak**: gezurrik ez, irainik ez, sarearen erabilerari buruzko arauak ezagutu.
- **Arau konplexuak**, nortasunaren errespetua, norbere ekintzen ondorioei buruzko ardura eta arrisku egoeren aurrean erantzuten jakitea bezala.

5.7. Arriskuak – Irudiak partekatu

- **Pribatutasun parametroak** definituz sare sozialetan partekatu nahi den **informazioa mugatu** daiteke.
- Edozein irudi, bideo edo argazki argitaratu aurretik **hausnartu egin behar dutela transmititu behar diegu**.

5.8. Arriskuak – Jazarpena, Nola aurre egin?

- **Ziberjazarpena** inguru guztietara **zabaltzen da, ziztu bizian**.
- Gure seme-alabei **errealitate honen berri eman**: hala, garbi edukiko dute ezin dutela jarduera horietan parte hartu sare sozialetan, eta, horrez gain, jakingo dute zer erantzun tankera honetako erasoren bat jasoz gero.
- [116111 Zeuk esan](#). Adingabea bazara edo laguntza behar duten adingabeak ezagutzen badituzu (dohainik eta anonimoa den telefonoa).
- [Zeuk esan Facebooken](#); [Zeuk esan Tuentin](#); [Zeuk esan en Twitterren](#).



- [Ziberbullying: Adingabekoen arteko ziber jazarpena \(gidaliburua, aholkuak, testak,...\)](#). [es]
- [ARARTEKOaren bulegoak argitaratutako material didaktikoa](#).
- [Ziberbullying-kasuetan ikastetxeetan jarduteko protokoloa \(emici\)](#).

5.9. Heziketa – Prebentzio neurriak

- Aprobetxa dezagun **gure seme-alaben ezagutza guk geuk ikasteko**; erakuts diezagutela sareak erabiltze, eta **nabaritu dezatela gure interesa**.
- Arriskuen inguruan hitz egitean, **mezu argiak** bidali.
- Garrantzitsua da **ikastetxearen laguntza**.

5.10. Heziketa – Praktika onak

- **Konfiantza eman** behar diegu laguntza behar dutenetan guregana jo dezaten.
- Beren **jarreran aldaketarik dagoen ikusi** eta **ikastetxearekin kontaktu zuzena** edukiko dugu.
- Egin beharrekoa: **Probak gorde**, sare sozialean argitaratutako **informazioa blokeatu edo salatuko dugu**, **ikastetxearekin kontaktuan** jarriko gara eta **behar izanez gero poliziarengana** joko dugu.
- [Tuentin, Facebooken eta Twitterren duzun zure profilaren pribatutasuna hobetzeko hainbat gomendioak](#).
- [Datu pertsonalak zaintzen: marrazki bizidunak eta ariketak gelan nahiz familian egiteko modukoak](#).
- [Zure datu pertsonalak babestearen garrantzia: irakasleentzat eta familiarentzat zuzendutako bideoak eta material osagarria](#).
- [Teknologiak erabiltzeko nerabe eta gazteentzako eskuliburuak](#).
- [Ziberbullying: Adingabekoen arteko ziber jazarpena \(gidaliburua, aholkuak, testak,...\)](#). [es]
- [Tuenti: gurasoei eta tutoreei zuzendutako informazioa](#). [es]
- [Legeak eta sare sozialak](#). [es]



- [Haur eta nereabeek IKT en erabilera seguruari buruzko ikerketa eta gurasoek dioten e-konfidantza](#). [es – pdf]